

Jose Inazio Basterretxea

Universitas



auteskunde-prozesuaren baitan murgildurik dago Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU). Unibertsitate publiko horretara hurbiltzen dira urtero berrogeita bost bat mila ikasle, euren irakasle eta zerbitzutarako langileekin batera. Zientziaren paradigma, enpresa moduan, erakunde handia da EHU. Eduki sinbolikoen sortzaile eta kudeatzaile gisa, laborategi aproposa ere bada. Euskararen garapenerako eta gizarteratzeko, erabateko giltza.

Abenduaren 4an izango da Euskal Autonomi Erkidegoko unibertsitate publikoan Errektore berria hautatzeko eguna. Euskararen nazioarteko egunaren biharamunez.

AZKEN URTEAK. Konplexua da unibertsitateko jarduera. Dela ikasketa-programa, dela ikasleen ikasgaitasuna, dela irakasleen lana, dela zerbitzuetako langileena, dela gizarteak krisia bizi duela... unibertsitatean beti arazo. Lan ugari.

Juan Ignacio Pérez Iglesiasek zuzendu du EHU azken urteotan. Ikasketa-plangintza berriak abiatu dira, langileen irabazpideak eta lanpostuen iraunkortasuna indartzeko ahaleginak egin dira, campusen birmoldaketa teknologikoa eta urbanistikoa abiarazi da... Emaitzak hor daude, nork berak epaitzeko.

URREAREN DISTIRA. Iñaki Goirizelaia eta Marisol Esteban hautagaien adierazpenak jarraitu ditut azken asteotan. Unibertsitate publikoan ulertzeko eredu desberdinak planteatzen dituzte.

Halere, bat-edo egiten dutela iruditu zait arlo batean. "Ireki" eta "kanporakoia" nahi dute Goirizelaia eta Estebanek unibertsitate publikoan. Nazioarteko konkurrentzian, Euskal Herriko Unibertsitateari, berari dagokion lekua aitortu behar zaiola esan izan du Goirizelaia. Mugaz kanpoko lehian erakutsi behar duela EHUK bere balioa, Estebanek.

Globalizazio-garaiotan, logikoa ere bada EHUK bere gandorra erakustea etxetik at.



INIGO AZKONA

PROBETEN HERDOILA. Baina, irudipena dut, irudipena, ezen, kanpoko eguzkiaren distirari begira, etxerako begiak itzaltzen ari zaizkigula. Aitor dezadan hizkuntzak, euskarak arduratzen nauela. Lan-hizkuntza moduan, administrazio-hizkuntza moduan, eztabaida-hizkuntza moduan, dozentzia-hizkuntza moduan, ikerkuntza-hizkuntza moduan...

Euskararen errektoreordetza historikoa, Euskara eta Eleaniztasuna errektoreordetza bihurtzea proposatzen du Goirizelaia. Estebanek dio euskara ez dela zamatatu behar artifizioekin.

Irudi lezake ezen "gehiegi" egin dela azken denboretan euskararen alde... Ez dut iritzi bera nik. Zeren, EHUK ez baitu normaltasunez bizi euskara. Beti dabil euskara delako hori erdaraz diseinatutakoaren atzetik. EHUn, itzultzaile onak gara euskaldunak, baina, oro har, ezin frogaturik gabilta sortzaile onak ere bagarela, ezin errunik gaude geure arrautza.

Hizkuntza-normaltasuna eta egokitasuna kudeatzeko unean, ausardia berri bat behar luke EHUK. Ausardiarik gabe, ez dago laborategietako probetetan azpimarratzeko moduko aurkikuntzarik.

Ausardia hori gorpuzten joateko, eztabaida eta borondatea behar dira. Euskararen oraingo egoera apaldua saihesteko, agian, balizko campus euskaldunei buruz, euskara naturaltasunez biziko luketen campus berezituak sortzeari buruz hitz egin beharko litzateke.

Edo, euskaldunentzako lizentziatura berezituak diseinatzeaz. Alegia, euskararen hizkuntza-erkidegoari gai unibertsalak bere beharrezan baitatik azalduko dizkioten karrera eta curriculumak diseinatzeaz.

Euskararentzako probetak garbitzen eta prestatzen ikusi nahi nituzke hautagaiak. Tamainako ausardiarekin. Euskararen goratze sentimentaletik, onartze arrazional eta praktikoetara egin dezagun jauzi Akademia Nagusian. ■

EHUK ez du normaltasunez bizi euskara. Beti dabil euskara delako hori erdaraz diseinatutakoaren atzetik. EHUn, itzultzaile onak gara euskaldunak, baina, oro har, ezin frogaturik gabilta sortzaile onak ere bagarela